

2. ATALA: MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure ogia erosteko prest dagoen edozeinentzat eskainita egongo da, baina ogi hauen prezioa normalean baino garestiagoa izango dela ere kontuan izan behar da. Beraz, kontsumitzaileen kopurua murriztu egingo da. Mugatze hori lehentasunek eta diru-sarrera mailak baldintzatuko dute. Kontuan izan behar da pertsona guztiek ez dituztela gustu berak, beraz, posible da pertsona batzuei guk ekoizten ditugun ogi motak ez gustatzea. Baina egongo da gustatuko zaionik ere. Azkenik, gure ondasunen prezioa gure lehiakideena baino garestiagoa izango da. Beraz, gure bezeroak diru-sarrera maila ona izan behar du, baldin eta gustatu ezkeru hau erosteko aukera izan dezan. Beraz, irizpide hauen arabera taldekatuko ditugu gure bezeroak:

- Adina
- Diru-sarrera maila
- Osasuna
- Gustuak
- Alergiak edo gaixotasunak



Gure bezeroek argi eduki beharko dute zergatik den gure ogia garestiagoa; kalitatezko lehengaiak erabiliko ditugulako eta okindegi gutxik saltzen dituztelako horrelako ogiak. Gure ondasunak adin guztietako pertsonen eskura egongo dira. Gehienbat, ogi hau beraien osasuna zaindu nahi dutenei zuzendua egongo da, baita alergiak edo beste behar bereziak dituztenei ere. Baina ez dago arazorik beste edonork erosi nahi izanez gero.